

Kazetaritza gozatsua

Euskaldunon Egunkaria, 1997-01-26: 3.

Bada mingotsa den kazetaritza, min egiten duena, alegia; orokorrean gaurkoa. Ez da gezurrezkoa, ez, arrazoin dute; egia hutsa isladatzen duela bistan da, eta onik ere egiten duela argi dago, halaber, gertaera minkorrek ere erakutsi behar dira gizarte gogor honetan, zorion faltsuzko lotan geratu nahi ez badugu. Badago arrisku hau ere, aizu, eta errealitatea aitzina behar du izan kazetaritzak. Existitzen du, bada, mingotsa den kazetaritza, etsenplurako, eta baita bekaxka den urteroko Gabonetako ikuskizun merke faltsua ere. Merke filmatua besterik ez da hori! Soka batek bi mutur dituen bezala. Baina, zorionez, bada aukerako beste adibiderik ere, bihotza duen kazetaritza izanik neurri justuagoak dituen eta nekea eta tragedia artean oreka apur batekin egiten den lana. Ikusi berri dudana oso gertukoa dakart. Irakurri dut herenegun EGUNKARIA honetako azken orrialdean ohizko ez den erreportaia bat, zerorrek ere irakurriko zenuen, agian irakurle: *Maitasunean aberats*, hemen ez da Mikel Azurmendi katastrofismoaren bigunkerietan erori, ez da pobreziaz gehiegi kupitu, ez ditu Joxe eta Maria merke donifikatu; ez du argindarraren konpainia tximistaz jo; ez ditu bizilekuaren miseria eta gabeziak eta beste kupidak ito; maitasunezko muxu batekin Berruterango burtsan askatasuna kotizatu; eta halere ez diote sari bat eman, oraindik.